

# *Bitoriano Gandiagaren oroitzapenez*

Juan SAN MARTÍN

**E**uskaltzaleon artean oso olerkari ospetsua eta gogoangarria izan dugu Bitoriano Gandiaga frantziskotarra, zeren, haren emaitza ez da izan edonolakoa.

*Denbora galdu alde* (1985) liburuaren hitzaurreko gogoetaren hasieran zioenez: "Behin batean bazen gizon bat, bat noiz den gizon ere ez zekiena". Eta denbora galdu alde aritu zen gizon graduetan goraka igo zenean. Zeren orduan hasi baitzen lanak, egin beharrak, arazoak betiko menpetasunen zerabiltzan eta hezkuntza bihurri hori uzteaz zintzotasunaren axola baztertuz denbora galdu alde aritzearren. Baliorik gabeko gauzak egiteari eman baitzion. Ipuinaren hasieran hala dirudi, baina hau ezda ipuina. Edo, bizitza bera ez ote da ipuina? Dena dela, abereen erresuman gizona denez ezertarako balio ez duen gauzak egiten dituen bakarra, zilegi zaio eroaldia ere, gauzen balioa bera neurtzeko adina ez denez gero. Baina, era berean, horrek bedorrek ez ote du gizonagotzen? Hori oraindik nabamena azaltzen da barne-muinetatik azalpeko mintzetako epidemisera arte berezko sentiberatasuna dakartenen artean. Hala bai da izakia.

Behin, Bitoriano Gandiagak eta biok, ustegaberik mendian elkar eza-gutu genuen, hura Araoztik gora Arantzazu aldera eta ni Zeraia eta Artia-Gaboño aldetik behera.

Haren *Denbora galdu alde* liburuari Egan aldizkarian 1986. urteko 1-2. zenbakiaren 169-172 orrialdeetan egin nion erreseña hartan nioen bezala. Morral handiz eta bortzegi zaharrez ibiltzen nintzen eta bera habitoz eta sandaliaz oso arin. Bakoitzak berekiko emetsak geramazkigun pausolasterrez trink eginaz, nor nor zen jakiteka. Agurtu ez ezik elkarrizketak izaten genituen. Euskaltzaletasun hitz aspertua erabili ondorean norbere bidetik jarraituko genuen. Inoiz galdetzen nion nire buruari: "nongoa ote fraide beltzaran hau?" Agian, Asiskoaren ametsak zeramazkin buruan. Baina uste horren arabera, fraideak berak zer pentsa zezakean ni bezalako hiritar naturazaleaz? Tartarinen itzala ez ote zuen nabarri? Izan ere, mundu honetan, bakoitza bere zoroak darabil.

Beste batean elkartu ginenean ausartu nintzen nongoa zen galdetzer a eta Bizkaiko Mendata herrixkakoa esan zidan. Herrixka hori ezagutzen

nuela agertu nionean, erantzuna izan zen: "Baina, izatez, herrigunetik urrutian Orbelaun deritzan baserrikoa". Hura izan zen nire ustekabea, Orbelaungoa? Hala delarik, zu izango zera Aita Bitoriano Gandiaga. A. Felix Bilbaoren *Ipuin-Barreka* (1959) liburuan datorren "Orbelaungo azeria" ren ipuina kontatu zeniona: "Ba, bai". Alajaina! Ba, ni, zure olerkien irakurleatariko bat nauzu *Elorri* (1962) argitaratu zenuenetik. Era horretara, geroztik, adiskide handiagoak egin ginen.

Aipatu dudan *Denbora galdu alde* bere liburu horretako olerki batean zioenez:

"Ibiliz ihardun, joan etorri,  
egon, euntzun, irakurri;  
bertsoen truke lor zenezake  
bizitzeko lain hazkurri;  
baina hain zaitut kikilimalo,  
izukor eta mudurri,  
irrits mingarriz gogo duzuna  
berbera zaizu izurri."

Hara hor bertsoak autobiografia gisa erako aitorkizunean.

Baina, holako poeta honek hamalaudunik (sonetorik) ez zuen maite. Horregatik zioen: "Nik ez dakit zergatik / ziur-ziur, baina / soneto edo hamalaukorik / ezin dut idatzi..." Tekniketatik aske ibiltzea nahiago zuen eta etzuen arrazoi faltarik. On egin bai zion, zeren sare horietara erori balitz sorketarako antzu geratzeko arriskua baitzuen.

Alperrik esango zuen liburu horren 49. orrialdean: "Alferra izan naizen kezkarik ez dut, baina bai alferrik aritu izan naizen damurik". Irakurleok ez dugu sinetsiko alferrik ibili zenik; ez horixe!. Beste gauza bat da olerkaria inoiz itoarazten duena:

"Noizbaitzuetan kaltegarri erizten diot  
nolabait lortu dugun  
edo nolabait egotzi diguten  
izen onari.  
Izen horri eustera behartzen gaitu jendeak  
batere errukirik gabe,  
izen horri eutsi diezaio gula  
hil ala bizi.

Bitorianok bere barneko kezkek eta gogoetak holako freskuraz agertzen zizkigun orrialderik orrialde. Gure ustez, iraun zezala horrelaxe denbora galdu alde. Denbora gaitze horretatik euskal literaturak ez baitzuen galerarik, bai ordea irabazkizunik, eta horren arabera izango zuen euskaldungoak gogotsu irakurtzeko aukera bikainik.

Liburu horretan egileak inoiz besterik uste badu ere, ez dago une antzurik. Badakigu lan gehiago eskatzea ez dela bidezko eta hoberik burutzea ez dela gauza erraza.

“Idazten jartzeko  
astirik ez, eta orduanago  
idazteko astia dut opa.  
Idazteko astirik bai, eta orduan  
astirik ez dudan hartako  
idazteko gogoa dut falta.”

Hori ez da B. Gandiaga idazleari bakarrik gertatzen zitzaiona, hori idazlerik gehientsuenen gaitz tamalgarria da.

Bakoitzak bere barnean aurkitu behar du biziaren grazia eta Gandiagak barnetiko gogoz hala aitortu zigun: “Apaizgoak izpiritu-esperientzia gozo eta izugarrietara eraman nau eta zor diot erlijio-bizitzari buruzko ikuspen ederrik, erlijiozko misterioak ekuztatzeko graziarik”. Lasaitasun hori edonorrentzat enbidigarri da. Gure lasterketazko bizitzatik lehia horiek nabari ditut. Baita behin Gandiagari agertu ere.

– Neu ere gustora biziko nintzake Arantzazun, Aita Kandidoren ondoan, liburuak atontzen.

Berak hitzetik hortzera ihardetsi zidan:

– Ba, etorri.

– Eta, emaztea ta semeak, zer?

– Sindikako ostatuan.

Hitzetik hortzerako umorean, holakoa bai zen gure Gandiaga. Baina, tontotasuna? Ba, 95. orrialdeko olerkian zioena, inondik ere ez. Tonto jaioa zela uste bazuen ere, ez zuen tontotasunaren ilerik. Hutsaren hurrengo diren harroputz listopasauak bakarrik uste izango dute holako olerkaria tontoa zela.

*Denbora galtze alde* edo *barrena lasaitze alde*, burutu zituen liburuak ez dira txantxetakoak. Hizkuntzaren erabileran bertan zuen gizontasunezko nortasuna, gogoetaren eremuetan naro aritu bai zen gure gizon hau. Liburuen barna bere ikuspegi jakingarriak iduritzen zaizkigu, bere buruaz ziharduenean batipat. Horregatik, 99. orrialdean eskaintzen zituen bertsoak antolojikoak izan daitezke. Horregatik, olerkiaren arloan arduratu diren euskal idazleen aldetik gorospenik ez zitzaion falta izan.

Euskaltzaletasunean ordea, beti zuhur eta tinko. Liuru horren 113. orrialdean dakartzan bertsoak abertzale direla esaten dutenen politikari kastarentzat onak dira. Nahiz ezker edo nahiz eskubi. Hortaz jabetuko ote dira? Jabetzeko gauza ez badira, 114-115. orrialdeetan eskatzen duen aske hahi hori ez litzaiguke aski.

1968ko urte hartan beste liburu bat argitarau zuen, *Gabon dut anuntzio* izenburuz. Zeini egin nion beste erreseña bat *Egan* aldizkariaren 1989ko zenbakiaren 237-238. orrialdeetan. Era honetara azalduz:

Liburu hau baino lehen, egilearen haurtzaroan, Gabonak ospatzen ziren Orbelaunen eta betirako itsatsirik gelditu zitzaizkion sutondoko irudiak. Irudi emankorrak usuario zaharretatik esperantzaren berrikuntzara begira zioen:

“Tradizioak, ohiturak,  
zeinuak eta fedea,  
dena genuen batera bizi,  
hori zen gure legea.”

“Hotza kanpoan eta  
su ederra barruan,  
han dakusat Orbelaun  
baso-sailen erdian  
sutondo bete pozez.”

Pozik anitz ekartzen digute Eguberriz jasotzen ditugun erregalitxoak, baina 1986an jaso ditudanetan pozgarriena izan zitzaidan B. Gandiaga adiskideak eskuizkribuzko eskaintzaz bidali zidan *Gabon dut anuntzio* deritzan liburuia izan zen. Txukun aurkeztua. Musika: Pello Zabalak ondua; irudiak: Xabier Egañak pizkarri prestatuak; eta maketa: X. Egaña berak J. A. Adurizen laguntzak egokitua.

Gizarte tradizioa ez ezik, gure literaturarako ere jarraitzen du liburu honen gaiak. Bukaeran ikus dezakegunez, duela ehun urte Beovide-ko Aita Fr. Crispinek *Asis-co loria* (1885) zeritzan hartan ere erabilia.

Gai honen hasiera, Detxepareren aipamena eta herri literatura alde batera utzirik, Ziburuko Joanes Etxeberriren *Noelac* (1630) zeritzan liburuarekin dator. Hortaz berririk anitz emana nuen *Gogoz* (1978) eta *Bidez* (1981) liburuetan.

Gure literatura bera bezain zahar den gai hau ahortu ezinezko bihurtzen da, beti fresko eta beti berri holako poetaren baitan. Gainera, behartsuaren aldeko itxaropenez Asisko Frantziskoren mezua dakarte olerkiok beren muinean, kontsumoan eroria den gizartea kritikatu eta era berean guzientzat biziki anaitasuna, maitasuna eta esperantza barreiatuz.

“Gabon dut anuntzio  
desinteresatu;  
Eguberri-poza dut  
nahi erregalatu:  
Gabon-Eguberrien  
berria haizatu,  
doan dadin jendea  
munduan gozatu”.

1983.etik 1985.era *Egan*-en argitaratu genituen Ckristmak sail ederra osatzen dute liburu horretan. Egia bada “hitz atsegin eta beroz, horretara poztuta” bizkortu duela ekintza, aurrerantzean ere mika aldiak ken eta bizkorrazteaz ahaleginduko gara. Ez du axola denbora galdu alde arituko bada ere, bere ekarria antzua ez denez gero.

Hain adiskide egin ginenez, geroztik elkarrekin zenbait mendi-ibili egin genituen. Horietako batean, Artzanburuko trikuarria (dolmena) ere bisitatu genuen. Eta, han eman nizkion adibideengatik, esan zidan Arantzazu-Artia mendietan, Artaso zeritzan tokian, horren antzerako harripilla aurkitu zuela 1964.urte inguruan, baina zalantzak zituela dolmena izango ote zen.

B. Gandiaga oharpen berezidun gizona zenez, eta 1968.urtean elkarrekin joan ginen hura ikustera eta, zalantzarik gabe, esan nion aurkitu zuen hura, dolmen bikaina zela.

Arantzazura itzultzean aurkipen horren berria eman genien zenbait fraide adiskideri eta horietako batek esan zidan, Artosotik laster,

Gaillaurko lepoan ere bezela harripilla handi bat, beharbada horrekin ikustekorik izango zuena. Eta 1971.eko apirilean joan ginen hura ikus-tera. Han ere ez nuen izan zalantzarik. Eta, inon katalogaturik gabe zeuden trikuarriak zirenez, bieri neurriak hartu, marrazkiak egin eta argazkiak atera nizkien. Horrela, Artaso eta Gaillaur biok lan batean katalogatu nituen: “Arantzazu-Artia bi dolmen” izenburuz *Anuario de Eusko-Folklore*, XXIV (1971-1972), 271-278 orrialdeetan.

Garai hartarako Gandiaga hasia zen igandero Soraluzeko San Andres ermitan meza ematen. Harat-honako egokiera hobea izan zezan, larunbatetan gure etxea etortzen zen, bertan lo eginaz gero San Andresera joateko. Harremenetarako hain gizon atsegina zenez, oso etxeko egin zen, gure semeak ere osaba baten gisara hartu zuten. Baina egun baten agertu nion, noizbait Eibartik kanpora aurkituko banintza, Soraluzen aspalditik hain adiskide nituen Julian Bandaormatxea eta beronen emazte Anjelita aurkeztu nizkion, haien etxera joan zezan. Esan beharrik ez dut, haientzat ere adiskide atseginez gainera oso etxeko egin zela.

Julian, ahots oneko kantazaleaz gainera entzumen oneko gizona denez, egun batean esan nion hain maiz entzun nion “Guazen Belenera” kanta zitzaiola B. Gandiagari. Eta honek bai laster jaso ere. Handik lasterrera argitaratu zuen *Arantzazu* aldizkarian.

Azken urteotan minbiziak joa zebilen. Gaizki jarri zenean Barakaldoko Gurutzeta Ospitalera eraman zuten eta han bisitatu genuen H. Knörr, P. Telleria eta hirurok. haren fede sendoaren babesean aski lasai aurkitu genuen. Hala ere, esan zigun, bera ez zela luzarorako. Handin egun gutxira eraman zuten Arantzazura eta 2001.eko otsailaren 21ean hil zen. Goian bego.

Arantzazun egin zitzaion harena hileta eta ehorzketara alde askotatik joandako jendetza handia bildu ginen, beraien artean euskal idazle asko eta horrek erakusten zuen zein gizon ospetsua genuen.

Bukatzeko, esan dezadan Bitoriano Gandiagaren oroitzapenak izango ditugula. Euskararen aldeko mezua hor dugu *Denbora galdu alde* liburuko 113. orrialdean:

## HEMEN

euskaldun izatea bezalako  
gudaririk ez dago.  
Hemen euskaraz irakurri  
eta euskaraz idaztea bezalako  
iraultzailerik ez dago.  
Hemen  
euskara indartzea bezalako  
indar politikorik ez dago.  
Hemen ez dago  
euskara adinako desafiorik  
inperio zurrupariaren  
aurka.  
Hemen ez dago  
euskara adinako  
askatasunaren aldeko  
itxarobiderik.

Baina ez da hori baino gutxiagorako *Hiru gizon bakarka* (1974) liburuaren 178. orrialdan eskaini zigun Artasoko laugarren salmua. Non zioen:

Hilgo naz,  
ta edertasunak  
jarraituko dau lurrean.  
Aleluia.

Hilgo naz,  
eta jaustean,  
joko dot lurra, lurrean  
Aleluia.

Hilgo naz,  
eta erraiak  
lurtuko dira lurrean.  
Aleluia.

Hilgo naz,  
eta hezurak  
harri dirake lurrean.  
Aleluia.

Hilgo naz,  
eta lurrago  
jarraituko dot lurrean.  
Aleluia